



Klimaren jolasa

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.

HELBURUA

- Aldaketa klimatikoa dela eta, zuen ideiak adierazi eta konponbiderako proposamenak egin.

MATERIALAK

- ◆ Papera eta boligrafoa.
- ◆ Horma-irudientzako paper handiak eta margoak.
- ◆ Kontsulta liburuak.

Azalpena

Lehiaketa modukoa da. Lau taldetan banatuko duzue gela eta talde bakoitzak sei galdera prestatuko ditu beste taldeei egiteko. Galderak prestatzeko zuek ikasitakoaz eta liburu eta irakaslearen laguntzaz baliatuko zarete. Galderee hiru erantzun posible emango dizkiezue baina bat bakarrik izango da egia. (Adibidearen moduko galderak presta ditzakezue).

Talde bakoitzak beste talde bakoitzari bi galdera egingo dizkio eta guztira sei erantzungo. Galdera erantzuten duen taldea izango da hurrengo galdera egiten duena. Holan galdera guztiak erantzun arte.

Ondoren, eta emandako erantzunak oinarri izanda, aldaketa klimatikoa murrizteko zuen proposamenak irudikatu horma-irudi batean. Beste taldeekin amankomunean jarri eta eskolako leku ikusgarri batean horma-irudiak eskegi.

Galdera adibideak (Erantzun zuzenak markatuak daude)

Aldaketa klimatikoaz hitz egiten ari garenean zertaz mintzatzen gara?

- 1. Landare mota batez.
- 2. Lur planetaren tenperaturaren igoera txiki batez.
- 3. Uda batzuetan egiten duen beroaz.

Zein nolako eragina du aldaketa klimatikoak iparburuetan?

- 1. Desizoztea.
- 2. Izozte handiagoa.
- 3. Hondartza berrien osaketa.



¿Ondorengo gasetatik zein da aldaketa klimatikoaren eragile nagusia?

- 1. Barioko nitratoa.
- 2. Ur lurrina.
- 3. CO₂.

Nola deitzen zaio CO₂-k atmosferan sortzen duen efektuari?

- 1. Efektu katastrofikoia.
- 2. Berotegi efektua.
- 3. Mintegi efektua.

Esaldi hauetatik zein da gezurra?

- 1. Arnas egitean gizakiok CO₂ sortzen dugu eta airera botatzen dugu.
- 2. CO₂ ezinbestekoa da gure planetan bizia egon dadin, baina kontzentrazio egokian.
- 3. CO₂, eguratsean erraz desegiten eta desagertzen den gasa da.

Zerk eragin du eguratsaren CO₂en kontzentrazioa handitzea azken 100 urteetan?

- 1. Petrolio, gasa eta ikatza erretzeak.
- 2. Zigarroen keak.
- 3. Behien puzkerrak.

